



ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2018ko maiatzaren 28a, astelehena**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **28 de Mayo de 2.018, lunes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO UDALBATZARREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2018.03.07 ETA 2018.03.19).

2.- 2019ko HERRIKO JAIEGUNA EZARTZEA.

3.- GIPUZKOAKO JUBILATU ETA PENSIONDUNEN "DUINTASUNA" ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

4.- ZIZURKILGO GURE ESKU DAGO TALDEAK AURKEZTUTAKO ESKAERA.

5.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (36/2018tik 92/2018ra).

6.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

ORDEN DEL DÍA

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (07.03.2018 Y 19.03.2018).

2.- FIJACION DE LA FECHA PARA LA FIESTA LOCAL DEL AÑO 2.019

3.- MOCION PRESENTADA POR LA ASOCIACION "DUINTASUNA DE JUBILADOS Y PENSIONISTAS DE GIPUZKOA.

4.- SOLICITUD PRESENTADA POR ZIZURKILGO GURE ESKU DAGO TALDEA.

5.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (36/2018 al 92/2018).

6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.


Zizurkilen, 2018ko maiatzaren 23an

Alkatea.

Zizurkil, 23 de Mayo de 2.018

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2018ko MAIATZAREN 28an EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DIA 28 DE MAYO DE
2.018**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA/ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)

Arkaitz Zaldua Jauregi (EH Bildu)

Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.)

Eva Usandizaga Mujika (EH Bildu)

José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak)

María Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.)

Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu)

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hemezortziko maiatzaren hogeita zortziko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udaltzatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) eta Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZARREN AKTAK
ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2018.03.07
ETA 2018.03.19).**


Udalbatzak, aho batez erabaki du 2018ko martxoaren 7an eta 19an egindako Bilkuren Aktak onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veintiocho de Mayo de dos mil dieciocho, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) y Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS
ACTAS DE PLENOS ANTERIORES
(07.03.2018 Y 19.03.2018).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar las Actas de los Plenos celebrados los días 7 y 19 de Marzo de 2.018



ZIZURKILGO UDALA

2.- 2019ko HERRIKO JAIEGUNA EZARTZEA.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak 2019 urteko herriko jai eguna proposatzea eskatu du.

Horretarako, astelehena den irailaren 9a, Arantzazuko Amaren jaiaren eguna proposatzen da.

Ondoren, aipatutako Hitzarmena onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 9 (5 Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzarrak, aho batez, erabaki du:

Lehenen. 2019ko herriko jaieguna izateko, irailaren 9a, astelehena, izendatzea, Arantzazuko Amaren jaiaren eguna.

Bigarrenen. Dekretu hau Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak jakinarazi.

3.- GIPUZKOAKO JUBILATU ETA PENSIONDUNEN “DUINTASUNA” ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Akta honen I Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 6 (5 EH Bildurenak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 3 (3 E.A.J.-P.N.V.renak).

2.- FIJACION DE LA FECHA PARA LA FIESTA LOCAL DEL AÑO 2.019

Vista la solicitud de la Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, para proponer la festividad local para el año 2.019

Se propone que dicho día sea el **lunes 9 de Septiembre**, festividad de Nuestra Señora de Aránzazu.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (5 de Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda:

Primero. Designar como festividad local para el año 2.019, el día 9 de Septiembre, **lunes**, día de la festividad de Nuestra Señora de Aránzazu.

Segundo. Dar cuenta del presente acuerdo Decreto a la Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

3.- MOCION PRESENTADA POR LA ASOCIACION “DUINTASUNA DE JUBILADOS Y PENSIONISTAS DE GIPUZKOA.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo I del presente Acta.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (5 de EH Bildu y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 3 (3 de E.A.J.-P.N.V.).



ZIZURKILGO UDALA

Beraz Udalbatzak, botoen gehiengoz, aurkeztutako Mozioa onartzen du.

E.A.J.-P.N.V.k adierazi du, 1. puntuarekin ados egon eta % 0,25eko igoera txikia iruditu arren, abstentziora jo duela, lehen-lehenik iruditzen zaiolako gaiaz negoziatu behar dela, gutxieneko pentsio duin bat ezartzeko, aztertzeko zer aukera erreal dauden pentsioaren zenbatekoa ezartzeko eta, ondorioz, dagozkion akordioak hartu ahal izateko.

4.- ZIZURKILGO GURE ESKU DAGO TALDEAK AURKEZTUTAKO ESKAERA.

Akta honen II Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (5 EH Bildurenak eta 3 E.A.J.-P.N.V.renak).
- Aurrakoto botoak: 1 (1 S.V.-E.S.rena).
- Abstentzioak: 0.

Beraz Udalbatzak, botoen gehiengoz, aurkeztutako Mozioa onartzen du.

S.V.-E.S.k adierazi du kontrako botoa eman duela, “erabakitze eskubidea” deritzona ez dagoelako Konstituzioan jasota, eta, hortaz, oraingo ezinezkoa delako eskubide hori aplikatzea.

5.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (36/2018tik 92/2018ra).

2018ko martxoaren 2tik maiatzaren 18ra Alkateak sinatutako 36/2018tik 92/2018ra zenbakia duten Dekretuen berri eman da. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

E.A.J.-P.N.V. manifiesta que, a pesar de estar de acuerdo con el punto 1º y considerar una miseria la subida del 0,25 %, su abstención se debe a que primero hay que negociar el tema de establecer una pensión mínima digna, ver las posibilidades reales de cuantificar el importe de la misma y, en consecuencia, tomar los acuerdos que correspondan.

4.- SOLICITUD PRESENTADA POR ZIZURKILGO GURE ESKU DAGO TALDEA.

La solicitud que se presenta es la que se refleja en el Anexo II del presente Acta.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (5 de EH Bildu y 3 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 1 (1 de S.V.-E.S.).
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la solicitud presentada.

S.V.-E.S. manifiesta que su voto contrario es debido a que el denominado “derecho a decidir” no está recogido en la Constitución, por lo que, de momento, no sería posible su aplicación.

5.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (36/2018 al 92/2018).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 36/2018 al 92/2017 firmados por la Alcaldía entre el 2 de Marzo y el 18 de Mayo de 2018, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.



ZIZURKILGO UDALA

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

La Corporación se da por enterada.

6.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

María Angeles Lazkano zinegotziak (E.A.J.-P.N.V.) galdetu du ea zer egoeratan dagoen Muñoa kalea 35 eta 36 eraikinen atzealdeko lursaila, eta ea kendu dituzten ustez kutsatuta zeuden lurak toki horretatik.

Alkateak erantzun dio kendu zituztela gainazaleko lur kutsatuak, baina, antza denez, badagoela arriskua lur sakonagoetan ere kutsadura egoteko. Hori dela eta, laginak biltzen ari dira aztertzeko.

José Antonio Sánchez zinegotziak (S.V.-E.S.) jakinarazi du Asteasuko erreka sedimentuz betetzen ari dela Teodosioko tunelaren eta Papelera del Oria presaren artean, eta, hori dela eta, eskatu du, Udalak beste urte batzuetan egin izan duen bezala, paper-fabrikari eskatzea garbiketa egin dezala sedimentu horiek kentzeko.

Alkateak jakinarazi dio paper-fabrikakoekin hitz egingo duela aurrean ere iazko garbiketaren antzekoa egin dezan.

Beste aztergaririk gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeit hamar minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.



6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

La concejal María Angeles Lazkano (E.A.J.-P.N.V.), solicita información sobre el terreno existente en la trasera de los edificios Muñoa kalea 35 y 36, y si ya se han retirado los suelos presuntamente contaminados que había en el lugar.

El Alcalde le responde diciendo que se retiraron los suelos contaminados de la capa superficial, pero que al parecer existe la posibilidad de que haya más contaminación en zonas más profundas, por lo que se están realizando catas para su comprobación.

El concejal José Antonio Sánchez (S.V.-E.S.) comunica que nuevamente el río Asteasu se está llenando de sedimentos en la zona entre túnel de Teodosio y la presa de la Papelera del Oria, por lo que solicita que, al igual que se hace otros años, el Ayuntamiento exija a la papelera que realice una limpieza para quitar dichos sedimentos.

El Alcalde le comunica que hablará con la papelera para que este año también realicen una limpieza similar a la del año pasado.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y veinte minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



I ERANSKINA -- ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA

2018 MAR. 28

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia 239

ZIZURKILGO UDALA

Gipuzkoako Jubilatutako eta Pentsiodunen "DUINTASUNA" ELKARTEAREN PROPOSAMENA

ZIZURKILGO UDALBATZARI AURKEZTEKO MOZIOA ALDERDI POLITIKOAK DEITUZ, AHALIK ETA BIZKORREN ONARTU DEZATEN.

MOZIOA:

Gipuzkoako Jubilatutako eta Pentsiodunen "DUINTASUNA" ELKARTEAK ESKATZEN DU MOZIO hau azter dadila Zizurkilgo Udalaren Udalbatzari eta deitzen ditugu Udal taldeak onartu dezatela.

Pentsiodunok aspaldi nabaritzen ari gara gure pentsioen eros ahalmena galtzen ari dela. Estatuko gobernuak egin dituzten ondoz ondoko pentsioen erreformak, PP-k nahiz PSOE-k, kalte handia egin digute. Gu gara, pentsiodunok, murrizketak nozitzen ari garenak (hilabete bukaerara iristea kostatzen zaigu, eta batzuetan, ez dezakegu berogailua piztu); bien bitartean, badago dirua bankarentzat, elektrikentzat, enpresarientzat,...

Pentsiodun gehienok txirotasun atalasearen azpitik kobratzen dugu, eta gero eta zailagoa egiten zaigu duintasunez bizitzea gure bizitzaren azken urteotan, urte luzez lan egin eta kotizatu ondoren. Dirudienek, horrek ez omen die axola gure politikariei, biztanleriaren %25a, pentsiodunok alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurririk ez dituztelako hartzen.

Ez da aurreneko aldia eskatzen duguna aintzakotzat har gaitzela, duintasunez bizitzeko lagako duguten gutxieneko pentsioak berma dakizkigula. Honen harira, gogoan izan behar dugu pentsiorik kaskarrenak dituzten gehien-gehienak, onartezina den zigor bikoitza jasaten duten emakumeak direla.

Honengatik guztiarengatik, eta uste dugunez BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela, lehen adierazi dugu beste gaietarako badela dirua, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:

- 1.- Arbuia dezala pentsioen %0,25eko igoera ziztrina eta erreklamatu dezala haien eros ahalmenari eutsi behar zaiola.
- 2.- 1.080 €-tako gutxiengo pentsioa ezartzea eska dezala, txirotasun atalasetik irten gaitzen, Euskal Herriari dagokion eran eta Europako Gutun Sozialak ezarria betez, eta hori gauzagarria izango ez den bitartean, eska diezaiola Gasteizko Jaurlaritzari, aipatu kopurua pentsiodun guztiek hileroko eskura dezaten, behar den osagarria ezarri behar dela.
- 3.- Ezar dadila Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantzaren Sistema, gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak berma daitezen.
- 4.- Datorren urtean, 2019. urtean, ezarri beharko litzatekeen jasangarritasun faktorearen ezarpena arbuia dadila, zeinak gure pentsioei murrizketa berria eta handia ekarriko dien.
- 5.- Bidal diezazkiela Estatuaren Gobernuari eta Gasteizko Jaurlaritzari Udal honek onartu dituen erabakiak.

Zizurkil, 2018ko otsailaren 28an

Sinatzailea:





PROPUESTA DE LA ASOCIACIÓN "DUINTASUNA ELKARTEA" Jubiladas y Pensionistas de Gipuzkoa.

MOCION AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL, EMPLAZANDO A LOS PARTIDOS POLITICOS A QUE LA APRUEBEN A LA MAYOR BREVEDAD.

MOCION:

Desde la ASOCIACIÓN "DUINTASUNA" de Jubiladas y Pensionistas de Gipuzkoa SOLICITAMOS sea tratada esta MOCION en el Pleno del Ayuntamiento de Zizurkil y emplazamos a los Grupos municipales a aprobarla.

Las personas pensionistas llevamos años perdiendo poder adquisitivo en nuestras pensiones. Las sucesivas reformas de pensiones realizadas por los gobiernos del Estado, tanto del PP como del PSOE, nos han perjudicado seriamente. Somos nosotras y nosotros, las personas pensionistas, quienes venimos sufriendo recortes, nos cuesta llegar a fin de mes y no podemos en ocasiones ni encender la calefacción mientras para la banca, las eléctricas, los empresarios etc. si hay dinero.

La mayoría de pensionistas cobramos por debajo del umbral de pobreza y tras tantos años de trabajo y cotización, se nos hace cada vez más difícil vivir dignamente los últimos años de nuestras vidas. Todo eso no parece importarles a los políticos pues no toman medidas para paliar esa situación por la que atravesamos casi el 25% de la población, las personas pensionistas.

No es la primera vez que reclamamos se nos tenga en cuenta, se garantice unas pensiones mínimas que nos permitan vivir con dignidad. No podemos dejar pasar por alto que la mayoría de las personas que tienen pensiones bajas son mujeres que sufren un doble castigo inadmisible.

Por todo ello y entendiendo que es cuestión de VOLUNTAD POLITICA pues, como hemos manifestado antes para otras cuestiones si hay dinero, SOLICITAMOS AL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL.

1-Que se rechace la mísera subida de 0,25% de las pensiones y se reclame el mantenimiento del poder adquisitivo de las mismas.

2-Que se solicite el establecimiento de una pensión mínima de 1.080€ para salir del umbral de la pobreza, según corresponde a la Comunidad Autónoma Vasca y establece la Carta Social Europea y mientras eso no sea posible se reclame al Gobierno de Gasteiz que establezca el complemento necesario para que todas las personas pensionistas lleguen mensualmente a esa cantidad.

3-Que se establezca un Sistema de Protección y Seguridad Social para la Comunidad Autónoma Vasca que garantice las pensiones públicas y la atención necesaria que necesitan cada vez más las personas mayores.

4-Que se rechace la aplicación del Factor de Sostenibilidad que debería aplicarse el próximo año 2019 y va a suponer un nuevo e importante recorte de las pensiones.

5-Que se remita al Gobierno del Estado y al Gobierno de Gasteiz los acuerdos adoptados por este Ayuntamiento.

Zizurkil, 28 de Febrero de 2018

Firma: R.P.





II ERANSKINA -- ANEXO II

ZIZURKILGO UDAL ETA HERRIARI

ZIZURKILGO UDALA

2018 MAI. 22

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia 499

Zizurkilgo Udala eta herritarrak bidegurutze batean gaude: hegaldetik datozen haize atzerakoiak ditugu alde batean, eta demokrazian oinarritutako ziklo berri bat bestean. Zein bide hobesten dugun argi adieraziko dugu ekainaren 10eko giza katean. Erronkari heltzeko prest gaude. Erabakira iritsi arte lan egiteko daukagun determinazioa erabatekoa da. Etorkizun hobe batean sinesten dugulako, ziklo berria zabaltzeko mugarria jartzera goaz. Mugarri hori urrunago edo hurbilago jarri, gure esku dago. Herritarron esku.


Egungo marko juridiko-politikoak ezartzen dituen oztopoak nahikoa ez eta egungo markoa are eta murriztagoa nahi dutenek gure erakundeak jo puntuan jarri dituzte, herritar denon oinarritzko eskubideak urratzeko inolako erreparorik gabe. Katalunian aplikatu du Espainiako estatuak aurrenekoz 155. artikulua, baina Euskal Herrian ere aplikatu dezake. Ez dezagun ahaztu. Orain arte gatazka politikoa zena, erronka demokratiko bihurtzea lortu behar dugu.

Argi dugu, epe luzerako elkarbizitza bermatzeko ezinbesteko baldintza dela erabakitze eskubidea gauzatzea. Elkarrekin etorkizun demokratiko, justu eta duina eraikitze bidean, inoiz baino argiago dagokigu askatasunaren eta eskubide zibil eta politikoen defentsan elkarri eskua ematea. Hain justu, ekainaren 10eko giza kateak balio behar du adierazteko herri hau ez dagoela prest atzera egiteko bere asmo eta helburuetan, aurrera egiteko determinazioa duela. Halaber, etorkizuna elkarrekin eraikitze borondatea erakutsi behar du mobilizazioak, horrek ahalbidetuko duelako mugak eta oztopoak gainditzea eta urrutira iristea.

Euskal Herritarrok erabakitze eskubidea gauzatzeko ditugun milaka arrazoiak biltzen dihardu Gure Esku Dagok; horixe baita, finean, Herritarron Ituna. Erabakitze arrazoen bilduma; herritarren behar, ilusio, asmo eta zergatiak jasoko dituen bilduma zabala. Eta zertarako arrazoi bilketa hori? Bada, arrazoi horiei guztiei demokratikoki bide emateko, eta horretarako behar diren tresnak eta adostasun esparruak elkarrekin eraikitze. 'Herri bat gara, erabakitze eskubidea dugu eta herritarron garaia da' leloetatik abiatuz, erabakitze eskubidea edukiz beteko dugu. Etorkizunean elkarrekin eraiki behar dugun herriari eta gizarte ereduari buruz abiatu beharreko eztabaida zabalari ekarpena egin nahi dio egitasmoak.

Abiapuntu gisa, 2019 arrazoi biltzeko asmoa dugu, 2019. urtea dugulako jomugan. Esparru anitzetan, gizarte mailan, erakundeetan, zein nazioartean egiten ari diren urrats guztiek bat eginda, datorren urtean erabakitze eskubidea gauzatzeko aukera berriak sortu daitezkeela sinesten dugu. Euskal Herritarrok nolako etorkizuna nahi dugun irudikatu eta eztabaidatzen hasteko unea da.

Ziur gaude erabakitze arrazoen bilketak lagunduko digula ikustarazten nola gauden herri gisa, eta ohartarazten zein diren gure beharrak eta gure mugak. Herri gisako erronkak eta lehentasunak zehaztu eta erabakitze eskubidea gauzatzeko modua adosteko unea iritsiko da orduan. Denon artean heldu



beharreko erronka, eragile politiko eta sozialek eta herritarrok elkarrekin osatu beharrekoa. Horixe da GEDEK aipatzen duen Herri Ituna. Eztabaida, ekarpen, proposamen eta adostasunaren bidez eraikiko dugun tresna dinamikoa izango da.

Erabakitzeke eskubidea badugu eta arrazoiak ere soberan ditugu. Gauzatzeko ibilbidea elkarrekin adostea dagokigu orain. Eta hori guztion ardura da. Herri bezala jarduteko garaia da. Elkarrekin. Ezin baitugu aukera historiko hau galdu. Ezin gara geldirik geratu. Gure garaia da. Herritarrona. Determinazio osoz goaz aurrera, herritar burujabeok eraikiko dugun herri burujabera. Jende zoriotsua izan nahi dugulako, herri libre batean. Ekainaren 10ean eman diezaiogun eskua etorkiZUnari!

Erabakitzeke eskubidea dugu! Erabakitzeke milaka arrazoi ditugu! Adostu dezagun bidea elkarrekin

Guzti honengatik, Zizurkilgo Udalari eskatzen diogu, bat egin dezala GURE ESKU DAGOK antolatzen dituen ekimenetan eta luza diezaiola herri guztiari EKAINAK 10ean egingo den GIZA KATEAN parte hartzeko deialdia bertaratzeko izena emanez, egun hauetan zehar horretarako jarriko diren mahaietara agertuaz.

Zizurkilen jarriko diren mahaia:

- **Ostiral arratsaldeetan HERRIGUNEAN eta JOXE ARREGI PAZAN**
- **Larunbat goizetan HERRIGUNEAN**
- **MAIATZAK 27 igandea JOXE ARREGI PLAZAN**
- **EKAINAK 2 larunbata JOXE ARREGI PLAZAN**

Zizurkilen, 2018ko maiatzaren 22an

**ZIZURKILGO
GURE ESKU DAGO**